

Euzkadi'tik mundura begira

GURE ANTZEKOAK

Alkarrekin kidesan aundia dogu, gauza askotan, palonitarrak eta euskaldunok, aien edestia (istoria) eta gurea berdiñak bait dira punttu batzuetan.

Baiña beste guztien gaindik gauza batek egiten gaitu aiek eta gu alkarren antzeko: askatasunari dautsagun maitasunak.

Euzkadi'k ez dau askatasunik izan, joan dan mendean (sigloan) indarrez Lagi Zarra kendu yakon ezkerok.

Lagi Zarra burujabetza (autonomi) osoa zan eta egiazko yaretasuna (independentzia): Aberrirentzat eta aberriko gizakume guztientzat —ta gizakume bakoi-tzarentzat—, benetako askatasuna.

Munduan ez da izan demokrazirik (erkalik) jendeari gure Lagi Zarrak aiñako askatasunik iñoiz eman dautsonik.

ASKATASUN-BILLA

Euzkadi lez, askatasunik gabe eta egiazko yaretasunik gabe dago gaur Poloni.

Len ere maiz egon oi da orrela lurralde zabal ura.

Orraingo ontan Errusi Komnistak kendu eutsan. Poloni'ri burujabetza —eta une berean Poloni'ko jendeari askatasuna—, azkeneko Ludi-Gudaren ostean, inguruko Laterrietan (Estaduetan) lez, an ere indarrez komunismoa ezarri ebanen.

Komunismoa eta Aberri bakoi-tzaren burujabetasuna, alkarrekin lotu ezin diran gauzak doguz, ludi'ko errialde guztien gaindik Agintaritzak Bakar Mundukoi (mundial) bat ipiñi gura bait dau komunismoak.

Indarrezko Agintaritzak orren mendera buruak makurtzea eska-

POIZLOIZNI

tzen dautse Komunismoak ludi biribilkeko errialde guztiei.

Gaur egun Errusi'ko Jaurlaritzak dogu Agintaritzak Bakar eta Mundukoi ori: Errusi'ko Proletarien (i?) Diktadura.

ZAPALTZALLEAK

Gizakumeen askatasunari buruz... inork ez daki kabi berean bizi ez daitekezan txoriak dirala Askatasuna eta Komunismoa?

Komunismoan ezin daiteke Demokrazirik txertatu.

Ezta Komunismorik ere Demokrazian.

Orregaitik, ez da iñoiz ere Laterri demokrazidum bat Demokrazitik komunismora demokrazi-bidez igaro.

Komunist-erri guztietan indarrez eta odoletan izan da ezarria komunismoa.

Ez ote dabe ori ikusten Euzkadi'ko komunistek?

Euzkadi'n ere sortu yakuz ba komunistak, Franko'ren diktadura luze gogorraren zitu (frutu) lez. (E.I.A. (Euskadiko Ezkerra) eta H.A.S.I. (Erri Batasuna), dodaz gogoan itz auek idazterakoan).

Orain!: baztar guztietan zuzgaitz usteldua lez komunismoa jausten ari danean jaio yaku emen komunismoa!

Mundu osoan komunismuari eta marxikeriari uko egiten eta ostiko ematen yakonean asi yakuz batzuek emen jainko txiki bezala Marx gurtutzen!

LANGILLEAK

Ez ote dabez begiak irikiko gure komunistak auek —eta alderdi komunistei autarkia ematen dautseen euskotarrek—, Poloni'n gertatzen ari dana ikustean?

Poloni'koa bera gertatu bait zan leen ere Txekoslovakia'n, eta, milla aldiz gogorago, Ungari'n.

Sortaldeko Alemani'n eta baita Poloni'n bertaten ere gertatuak dira orain amar bat orte orrelako gauzak orain baiño len!

Zearo mingarria eta kezkarria ez ba'litz parregarria izango litzake Poloni'n gertatzen ari dana.

Poloni, Laterri komunistak da.

Beraz, Poloni'n Jaurlaritzak (Gobernua), Proletarien Diktadura da: Langilleek agintzen dabe Poloni'n. Ta... ikus emen benetan gauza mirengarria!

Proletarien Diktaduran, proletarietiek proletarietari proletarietaz askatasuna eskatzen dabilte oiuka eta asarre joan dan urte oso ontan.

Baiña proletarietiek ukatu egin dautsee eskari ori proletarietari, eta proletarietiek eskean jarraitzen dabelako, proletarietiek proletarietien aurka proletarietien gudarostea atara dabe kalera proletarietiek tiroka menderatzeko, eta an dabil proletarietien gudaroste ori, proletarietien esanera, proletarietiek errukirik gabe zigortzen, proletarietien paradisu.

EUSKALDUNAK?

Ori gertatu zan leenago Txekoslovakia'n, Ungari'n, Sarkaldeko Alemani'n, Kanboya'n Laos'en Tibet'en eta Afganistan'en.

Orrelako paradisu biurtu nai al dauskue Euzkadi gure komunist euskotarrek? Ez ote dabe begirik irikiko? Ez ote dabe egirik ikusiko?

Ezbedi, arren, alperrik ixuria izan Poloni'ko langilleen odola! Euzkadi askatasunaren sort-erria da! Ez bedi iñoiz beste diktadurak baten ankapera jausi! Gora Euzkadi askatuta!

LATIEGI'tar Bixente